EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILAREN BATZORDEA

COMISIÓN DE DERECHO CIVIL VASCO

EUSKO LEGEBILTZARRARENTZAKO TXOSTENA, 2022-2025

---

3. zk

01. Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea.

Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea (EZZB) Eusko Legebiltzarraren eta Eusko Jaurlaritzaren kontsulta- eta aholku-organoa da, eta bere misioa da euskal zuzenbide zibilaren garapena sustatzea eta arlo horretan lege-berrikuntzak eta aldaketak proposatzea.

Xede horrekin eta hura garatzen duten estatutuetan aurreikusitakoarekin bat etorriz, honako eginkizun hauek dagozkio, zehazki:

a) Euskal zuzenbide zibilaren garapena sustatzea, batez ere lege-erreformak egiteko beharrizanari buruzko irizpenak emanez, erreforma horien helburua denean indarrean dauden xedapenak finkatzea, harmonizatzea eta sinplifikatzea, edo euskal legeria unean uneko errealitate sozialera egokitzea, erakunde berriak arautzeko egokitasunari buruzko azterketak egitea barne, hala badagokio.

b) Indarrean dagoen zuzenbidea berrikusi, ikertu eta aztertzea, barruan hartuta, idatzizko arauez gain, ohiturazko zuzenbidea eta euskal zuzenbide zibilaren jatorrian dauden printzipio orokorretatik datorrena eta hura jakinaraztea eta hedatzea, zuzenbide horren aplikazioa errazteko xedez eta aurreko letran aipatzen den garapenaren euskarri izan beharko diren oinarriak eta konexio-puntuak ezartzeko xedez.

c) Zaintzako eta alerta goiztiarreko lanak egitea, euskal zuzenbide zibilaren legegintza-garapenak eta aplikazioak izango duten Estatuko eta Europako arau-esparruaren alorrean, baita Eusko Jaurlaritzak eta Eusko Legebiltzarrak eska dezaketen aholkularitza ematea ere, batez ere erakunde horiei Estatutik edo Europatik legegintza- edo araugintza-prozeduren tramitazioa dela eta kontsultak egiten dizkietenean.

d) Eskatzen dizkioten lege-aurreproiektuen eta xedapen proiektuen zuzentasun teknikoa eta hizkera juridikoaren eta estiloaren argitasuna sustatzea, hizkera inklusiboaren erabilera barne, eta, era berean, Batzordetik ateratzen diren testuetan aplikatzea indarrean diren legegintzako teknikaren zuzentarauak eta egin beharreko lege-proiektu, dekretu, agindu eta ebazpenak egitekoenak. Era berean, euskararen erabilera sustatuko da euskal zuzenbide zibilaren adierazpen-hizkuntza bezala, eta bere terminologia juridikoaren azterketa, bultzada eta zabalkundea, Euskaltzaindiarekin, Eusko Legebiltzarrarekin, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin eta horretarako egoki irizten dituen gizarte eragileekin elkarlanean.

e) Europan eta Estatuan oro har onartzen diren erregulazio onaren printzipioak bermatzea, bai eta administrazio-prozedurako oinarrizko legeriak zein euskal sektore publikoaren gobernantza onak eskatzen dituenak ere, eta, era berean, kontuan hartzea edo sustatzea indarrean dauden arauen emaitzen ebaluazioak eta, eskatzekoak direnean, egiten dituen araugintza-proposamenen inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa.

f) Zuzenbide zibilaren arloan eskumena duen saileko titularrari aholkularitza ematea, eta, hala badagokio, Administrazio Orokorraren gainerako sailei eta, era berean, baita Batzordearekin harremana izateko ardura daukan Legebiltzarreko organoari ere, eskatzen duten guztietan.

g) Aurrean ezarritakoez gain edo haien osagarri gisa, zuzenbide zibilaren alorrean eskumena duen saileko titularrak agintzen dizkion gainerako eginkizunak.

Organikoki, Batzordearen estatutuek xedatutakoaren arabera (urriaren 4ko 140/2016 Dekretuak onartu zituen, eta haren funtzionamendua ez ezik, dagokion sailaren egitura organikoarekin eta funtzionalarekin lotutako indarreko arauak ere arautu zituen), Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean zuzenbide zibilaren arloan eskumena duen sailari atxikita dago, eta, gaur egun, Gobernantza, Administrazio Digitala eta Autogobernu Sailari dagokio, lehendakariak agindutako sailen arteko arloen eta eginkizunen banaketaren arabera.

02. Eusko Legebiltzarrarentzako txostena

Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen Estatutuen 7.j) artikuluaren arabera, zera dagokio batzordeburuari: «Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen jardunari buruzko urteroko txostena igortzea Eusko Legebiltzarrari, honen ezagutza hutserako».

Txosten hau Eusko Legebiltzarrari Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen hainbat ekitaldiren berri emateko aurkeztu zaizkion txostenen artean hirugarrena da.

Oro har, txostenak urteko jarduera-plan bakoitzaren betearazpenari buruzkoak dira. Plan horiek osoko bilkura batean onartzen dira eta betearazpenaren berri Batzordearen osoko bilkurari ere ematen zaio, hurrengo bileran.

Hori, halere, ez zen Eusko Legebiltzarrari helarazitako lehen txostenarekin gertatu (hura ere, urte bakarrekoa izan beharrean, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen hiru urteko ibilbideari zegokion, hau da, 2018., 2019. eta 2020. urteei).

Kasu honetan ere, onartutako azken jarduketen eta ekintzan planaren betearazpenari heltzen diogu, alegia, 2022ko ekainaren 30ean egindako bilkuran onartutakoari.

Baina Batzordearen osoko bilkura hark 2022rako jarduketen eta ekintzen plana 2023ra zabaltzea erabaki zuenez, txosten honetan, urte bakarrekoa izan beharrean, batetik, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeak 2022ko eta 2023ko ekitaldietan egindako lana deskribatzen da,. Horrez gain, hemen azalduko denez, 2024 eta 2025erako urte horietako jarduna deskribatzen da ere. Urte horietan, osoko bilkuraren ospaketarik ezean, aurretik hasitako jardunen jarraipena egin zen. Guzti horren berri, kontsulta-organoaren osoko bilkurari eman zaio, 2025eko abenduaren 11an ospatutako osoko bilkuran.

Horren arrazoia hau da:

2023urtean ez zen osoko bilkurarik egin, urte horretarako jarduera plangintza onartuta baitzegoen aurreko urtean.

Horren ondoren, Batzordearen jardueraren ohiko martxa partzialki murriztu zen 2024/04/21eko hauteskundeen ondorioz, Legebiltzar berri bat eta 2024/06/25ean Eusko Jaurlaritza berri bat eratzearen ondoriozko antolaketa-prozesu osoarekin bat, batzorde zenbait kide Legebiltzarrak eta Jaurlaritzaren sail ezberdinen izendapenekin berriztu beharra dela eta. Horrenbestez, 2024 urtean ere ez zen osoko bilkurarik egin.

Hortaz, ez zitzaion urte horietan jardueren txostena Eusko Legebiltzarrari aurkeztu.

Prozesu hori 2025eko abenduan emandako azken izendapenekin amaitu zen.

Honela, egoera trakets horri buelta emateko, txosten honetan 2022tik 2025erako jardunaren berri emanez, azkenik, falta ziren urteen orain arteko jarduna Legebiltzarrari erabat azaltzeko harekin zegoen konpromezua betetzen da.

03. EZZBren 2022 eta 2025ko jarduketak.

a. Egindako azken osoko bilkura.

2025EKO ABENDUAREN 11an egin da azken osoko bilkuraren bilera.

b. Azken jarduera- eta jarduera-plana.

Osoko bilkuran eztabaidatutako eta presidentetzak onartutako azken jarduera- eta jarduera-plana «2022RAKO ETA 2023RAKO JARDUERA-PLANA» da, 2022ko

ekainaren 30ean egindako bilkuran onartutakoa eta Batzordearen web orrian eskuragarri dena.

c. 2022tik orain arteko jarduera laburpena.

2022. urtearen lehen erdian, Batzordea osatzen duten organoek 2021erako jarduketen eta ekintzen planari zegozkion jarduerak garatzen jarraitu zuten (2021eko ekainaren 30eko osoko bilkuran onartu zen plan hori).

2022ko osoko bilkura ospatu eta gero, 2022. urtearen bigarren erdian eta 2023. urte osoan, Batzordea osatzen duten organoek osoko bilkura hartan onartutako PLAN HORRI ZEGOZKION JARDUERAK garatu zituzten. Planak, estatutuetako 5. artikuluak Batzordeari esleitzen dizkion eginkizunei jarraituz, egindako jarduerak deskribatzeko erabiliko ditugun honako ardatz hauek zituen:

- Indarrean dagoen zuzenbidea berrikusi, ikertu eta aztertzea
- Euskal zuzenbide zibilaren garapena bultzatzea.
- Zaintza eta alerta goiztiarra, Estatuko eta Europako araudi esparruarekin lotuta
- Zuzenbide zibilaren arloan eskumena duen saileko titularrari eta, hala badagokio, Administrazio Orokorreko gainerako sailei aholkularitza ematea.
- Batzordearen beste eginkizun batzuk eta bere jardueren antolaketa eta kudeaketari buruzkoak

2024. urtean eta 2025ean, Batzordea osatzen duten organoek, berriz, 2024ko hauteskundeak eta geroko etenaldiaren ondoren, 2023an hasitako jarduerei jarraipena ematera mugatu zen batez ere.

Horrenbestez, ardatz horiek erabiliko ditugu orain arteko jarduna azaltzeko orduan:

- **Indarrean dagoen zuzenbidea berrikusi, ikertu eta aztertzea**

2015-2018 aldiko ebaluazio orokorra egiteko ahalegin handia egin ondoren, 2021. urtean proposatu zen bezala, hurrengo ebaluazio orokorra edo egoeraren ebaluazioa egiteko (2019tik 2022rartekoa izan beharko lukeena) datuak biltzen hasi arte, 2022an zehar bi jarduera-ildotan egin ziren ahaleginak:

- 2015-2018 prozesuaren oinarri izan ziren datuen eta iturrien zerrenda berrikustea, 2019-2022 prozesurako gehiago sartzeko edo hobetu beharrekoak hobetzeko.

- Biltzen diren datuen kalitatea, iturriak eta informazioa hobetzen saiatzea, kasuan kasuko erakunde eta organoekin lankidetzan, bereziki, 2015-2018

aldiaren ebaluazioak agerian jarri zuelako datuak biltzeko moduak edo datuen banakatze-mailak gabeziak dituela edo baduela zer hobetu. Horrekin lotuta, 2022an, informazio-iturri baliodunak mantendu edo hobetu ahal izateko landa-lana egin zen soilik, etorkizunean egiten diren ebaluazioak dagokienean egituratzeko.

Bai erabilitako iturriak zein orain arte bildutako datu guztiak Batzordearen web horria eskuragarri daude.

2023an, egin beharreko eragiketa estatistikoak Saileko organo estatistikoarekin elkarlanean egitea planteatu zen, eta lan horiek Saileko eragiketa estatistikoen plangintzaren baitan kokatzea, Eustaten errekurtsoen bidez gauzatu ahal izan daitezen. Etenaldia eta gero elkarlan hori ere etenda geratu zen.

Orain momentuan ebaluaketa lan guztiak 2025eko bileran adostutakoak martxan jarri arte zain daude.

- **Euskal zuzenbide zibilaren garapena bultzatzea.**

Kasazio legearen onarpena eta gero, 2022tik eta 2025erako jarduketei dagokienez, gutxienez honako puntu hauen berri eman behar da:

- EAEko ondare-zuzenbidearen arloko berezitasunei eta familia-ondarea eta -enpresa defendatzeari buruzko lege-aurreproiektua

2023an eta 2024an, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren barruan (ekainetik aurrera, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Saila izena hartu zuen), EAEko ondare-zuzenbidearen arloko berezitasunei eta familia-ondarea eta -enpresa defendatzeari buruzko lege-aurreproiektuaren administrazio-izapidetzeari jarraitu zitzaion, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak emandako irizpena 2024ko irailaren 19ra arte (orain arte egindako azken izapidea).

Tramitazioaren espediente osoa eta Batzordearen webgunean eskuragarri dago.

- Euskal Autonomia Erkidegoko sozietate zibilen erregistroa sortzeko dekretua

2024an eta 2025ean, bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko sozietate zibilen erregistroa sortzeko dekretua izapidetzen jarraitu da. Egitasmo hau 2019ko osoko bilkuran eskatu zen, hermandade, kofradia, mutualitate eta beste sozietate zibil tradizionalak barneratzeko

Aurreproiektuaren izapidetzea, gaur egun, osorik dago Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena barne (2025eko urriaren 16ko 125/2025 irizpena**)**.

Tramitazioaren espediente osoa eta Batzordearen webgunean eskuragarri dago).

- Euskal Zuzenbide Zibila Finkatzeko eta Integratzeko Legearen aurreproiektua

2023ko apiriletik maiatzera bitartean, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailean aurretiazko kontsulta-izapidea abiarazi zen, Euskal Zuzenbide Zibila Finkatzeko eta Integratzeko Legearen aurreproiektua egiteko prozedura hasteko aukerari buruz. Kontsulta horretan ez zen alegaziorik edo ekarpenik jaso, eta, ondoren, ez zen beste izapiderik egin.

Gogorarazi behar da aurreproiektu hori, EAEko kasazio zibilaren legearen aurreproiektuarekin batera, jasota zegoela Batzordearen 2018rako jarduera- eta jarduera-planean eta, ondoren, atzeratu egin zela, behin-behinean, kasazio-prozeduraren testua lehenesteko.

- **Zaintza eta alerta goiztiarra, Estatuko eta Europako araudi esparruarekin lotuta**

2022 eta 2023ko ekitaldian, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea adi egon zen, bai batzordekideen bitartez bai Batzorde Teknikoaren bitartez, euskal zuzenbide zibilak araututako erakundeei eragin ziezaieketen arau-proiektuei, eta aldaketa eta proiektu posibleak jakinarazi zizkion batzordeburuari.

2024 eta 2025eko berritasun legislatiboen azterlan eta gaurkotzea planteatu behar da.

Bestalde, ekitaldi horretan, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea Eusko Jaurlaritzaren eta Eusko Legebiltzarraren esanetara egon zen etengabe, edozein aholku-eskariri erantzuteko, bereziki, Estatutik edo Europatik legegintza- edo araugintza-prozeduren izapidetzea dela eta kontsultak egiten zaizkienean. Hala ere, denbora horretan Batzordeak ez zuen erakunde horien kontsultarik jaso kontzeptu horiengatik.

- **Zuzenbide zibilaren arloan eskumena duen saileko titularrari eta, hala badagokio, Administrazio Orokorreko gainerako sailei aholkularitza ematea.**

Aldi honetan, Batzordeak hiru txosten egin ditu, denak Batzorde Teknikoarenak, Eusko Jaurlaritzako hainbat sailek eskatuta:

Eusko Jaurlaritzako BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO Sailak eskatuta Batzordea euskal zuzenbide zibilaren berezko gaietan kontsulta-organo espezializatua den aldetik, eta proiektuan jasotako erregulazioari eta horrek ordena zibilaren eta familia-zuzenbidearen berezko gaietan izan dezakeen eraginari dagokienez, honako hau egin zen:

- 1/2022 txostena, Batzorde Teknikoarena, haurren eta nerabeen eskubideei eta haien bermeari, prebentzioari eta babesari buruzko lege aurreproiektuari buruzkoa.

Era berean, Eusko Jaurlaritzako GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU Sailak eskatuta, eta euskal zuzenbide zibilaren berezko gaietan berehalako eragina izateagatik proiektuan jasotako erregulazioari dagokionez, Batzordea kontsulta-organo espezializatua baita, honako hau ere egin zen:

- 1/2023 txostena, Euskadiko Sozietate Zibilen Erregistroa arautzen duen dekretu-proiektuari buruzkoa
- 2/2023 txostena, Euskal ondare-zuzenbidearen arloko berezitasunei eta familiaren ondarea eta enpresa defendatzeari buruzko Lege-Aurreproiektuari buruzkoa

Txosten hauek Batzordearen web orrian daude eskuragarri.

- **Batzordearen beste eginkizun batzuk eta bere jardueren antolaketa eta kudeaketa**

Zuzenbide Zibilaren Batzordearen eginkizunen artean sartzen da, baita ere, zuzentasun teknikoa eta hizkera juridikoaren eta estiloaren argitasuna sustatzea, hizkera inklusiboaren erabilera barne. Era berean, euskararen erabilera sustatuko da euskal zuzenbide zibilaren adierazpen hizkuntza gisa, eta bere terminologia juridikoa aztertu, bultzatu eta zabalduko da, Europan eta Estatuan oro har onartzen diren araubide onaren printzipioak bermatuta.

Ildo horretan, 2022 eta 2025rako ekitaldietan, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea etengabe egon da Eusko Legebiltzarraren eta Eusko Jaurlaritzaren esanetara, adierazitako gaiei buruzko edozein aholkularitza eskaerari erantzuteko, nahiz eta ez duen zentzu horretan inolako itaunik jaso epealdi honetan.

Bestalde, estatutuetan honako zeregin hauek ere esleitzen zaizkio Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeari: Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen kanpo-harremanak eta harreman instituzionalak. Hau da, lankidetza bultzatu eta sustatu behar du Batzordearen antzeko izaera duten zuzenbide zibilean espezializatutako

edo kodetzearen arloko beste kontsulta-organo batzuekin, Espainian, Europan edo nazioartean. Xedea izango da esperientzien trukea bultzatzea, elkarren jardunbide egokiak ezagutzea eta tresna praktiko edo informatikoak garatzea, edo interes komuneko gaietan beste lankidetza-arlo batzuk garatzea.

- Atal honetan aurrerapen aipagarriena, iragan 2025eko irailaren 10an Zaragozan antolatu zen Zuzenbide zibileko batzordeen arteko Estatuko lehenengo elkarteratze jardunaldian partehartzea izan da.

Topaketaren helburua izan zen Zuzenbide zibil propioa duten autonomia-erkidegoetako zuzenbide zibileko aholku-batzordeen arteko lankidetza eta esperientzia-trukea sustatzea.

Bilera hartan Justizia Ministeritzara igorri ziren 7 puntuko jardunaldien ondorio dokumentua onartu zen, azpimarra jartzen zuena batetik, Estatuko legegileak bere jardunean zuzenbide zibilen pluraltasuna kontutan hartu behar izanean eta lege gatazkak konpontzeko araudiaren garapenaren beharra aipatu zen, bai eta, bestetik, zuzenbide zibilaren eta prozedura zuzenbidearen arteko harremana dela eta, legegile autonomikoak beharrezko berezitasunak egokitzeko komenigarritasuna. Azkenik, elkarteratzeak egiten jarraitzeko beharra ere aipatu zen.

∞

Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeko Idazkaritza Nagusia

Vitoria-Gasteiz. 2025ko abenduaren 16a.

Donostia 1 VITORIA-GASTEIZ 01010
Tel.: 945 01 86 30 ddlycn@euskadi.eus